

EUSKAL SOZIALISMOAREN HISTORIA

AURKIBIDEA

1. LEHENENGO PAUSOAK
2. PEREZAGUAREN URTEAK
3. INDALECIO PRIETOREN BURUZAGITZA
4. SOZIALISMOA GIPUZKOAN ETA ARABAN
5. SOZIALISTAK ETA LEHENENGO AUTONOMIA ESTATUTUA
6. FRANCOAREN DIKTADURAREN URTE LUZEAK
7. DEMOKRAZIAREN BERREZKURATZEA
8. TRANTSIZIOAREN GARAI ZAILAK
9. EUSKADIREN ZENTRALITASUN POLITIKOA
10. PATXI LOPEZEN GOBERNUA
11. GARAI BERRI ALDAKORRETAN NABIGATZEA
12. HASIERA BERRIA EUSKADI GEHIAGO EGITEKO

Euskadiko Alderdi Sozialista Euskadiko erakunde politikorik zaharrena da. Historia luzea eta gogorra du, beraz: berdintasun sozialaren eta askatasunen aldeko borroka tinkoaren historia eta gure herriarekin dugun konpromisoaren historia. Ezkerreko alderdi gisa, euskal sozialismoak langile–mugimenduan eta langile–mugimendu horrek emantzipazio sozialaren alde eramandako borroketan ditu bere sustrai sakonak. Herriko alderdi gisa, berriz, goizik hasi zen lanean Euskadin Erregimen Zaharraren eraldaketak eta iraultza industrialak sortutako identitate– eta autogobernu–arazoei erantzuteko.

Izaera bikoitz horretan (ezkerreko indar politiko eta herriaren aitzinamenduaz eta instituzionalizazioaz kezkatutako euskal alderdi), Euskadiko Alderdi Sozialistak arrasto sendoa utzi du gaur eguneko Euskadiren eraketan, eraketa hori XIX. mendeko asaldaketa politiko, ekonomiko eta sozialekin hasi zen–eta.

Beste alde batetik, euskal sozialismoak izugarritzko eta sakoneko eragina izan du beti Espainiako sozialismoan, izan ere bere hastapenetatik PSOEn kofundatzaile izan zelako. Horregatik, Euskadin aurrera eramandako esperientzietatik, Espainiako sozialismoa onartuz joan da hainbat jarrera politiko, hala nola - besteak beste - formula autonomiko bat sortu beharra Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialde guztien eskaerei erantzuteko.

1.- LEHENENGO PAUSOAK

Euskal sozialismoa XIX. mendeko azken hamarkadetan sortu zen, Monarkiaren Berrezarkuntzaren garaian, eta, bere hasieran, bi etapa argi izan zituen, bere buruzagi inportanteenek, Facundo Perezaguak eta Indalecio Prietok, mamituak.

Facundo Perezagua, Toledoko seme, 1860an jaio zen langile-familia batean. Metalurgia zuen lanbide eta Pablo Iglesiasen laguna zen. Berak eman zion hasiera lehenengo erakunde sozialista abian jartzeko lanari: Bilboko 'Agrupación Socialista' delakoa, 1886ko uztailaren 11an hogeit hamar pertsona inguruk egindako bileran eratu zena, hain zuzen.

Elkarte horrekin, eta Enkarterrietako meatze-arroan eta Ibaizabal ibaiaren ezker aldeko industria-gunean sortuz joan ziren beste batzuekin, Perezaguak PSOE fundatu zuen Euskadin. 1900. urtean, Bizkaiko Federazio Sozialistak hamar toki-elkartek osatzen zuten. Hala, Madril eta Asturiasekin batera, Bizkaia genuen Espainiako sozialismoak indarririk handiena biltzen zuen triangeluaren hirugarren angelua; hainbestera non Ramiro de Maeztu idazleak "Sozialismoaren Meka" deitu baitzion Bilbori.

2.- PEREZAGUAREN URTEAK

Perezaguaren buruzagitzaren ezaugarriak erradikalismoa eta mobilizazio soziala izan ziren; batik bat meategietan, lehenengo greba orokorraren arrakastarekin. Lehenengo greba orokor hori 1890eko maiatzean izan zen eta 30.000 langile baino gehiagok astebeteko lanuztea egin zuten. Horrek hasiera eman zion sozialismoaren nagusitasunari euskal langile mugimenduaren barruan Monarkiaren Berrezarkuntza garaian, eta inork ere ezin zuen berarekin lehiatu. Sozialismoa bihurtu zen, hala, Bizkaiko industri langileen antolamendu politiko eta sindikalaren adierazpen, haien kontzientziaren katalizagailu, eta herriko beste eskualde batzuetarantz (Eibar, Donostia, Tolosa, Irun, etab.) zabaltzeko gune.

Ondorengo bi hamarkadetan (greba eta gatazka sozial tarteka oso gogorrek astinduak), Facundo Perezaguak gidatutako euskal sozialismoak berezitasun bat izan zuen: langileen borroka sindikala borroka politiko eta elektoralen gainetik jartzea. Fronte horretan, batik bat udal hauteskundeek axola zioten Alderdi Sozialistari.

1891an, zenbait meatze-herrik, eta batez ere Bilbok, zinegotzi sozialisten sarrera ikusi zuten. Haien artean Perezagua bera sartu zen. Bilboko alkatetza, ordea, 1920ra arte ez zuen lortu PSOEkin (Rufino Laisecarekin).

Lehenengo euskal sozialismo honen antiklerikalismoa izan zen Perezaguaren buruzagitzaren beste ezaugarrietako bat: "La Lucha de Clases" Bilboko astekari sozialistak zabaltzeko antoklerikalismo hori, bereziki Tomás Meabek zuzendu zuen aldiari, Bilboko eta Espainiako Gazteria Sozialistak sortu zituenak, hain zuzen.

Lehenago, laurogeita hamarreko hamarkadan, Bilboko Elkarte Sozialistak maila handiko intelektual bat izan zuen bere lerroetan: Miguel de Unamuno kide izan baitzuen, Salamankako Unibertsitateko katedraduna bera. Miguel de Unamunok berrehun artikulua inguru argitaratu zituen “La Lucha de Clases”-en eta PSOErekin bat egin zuen bere antimilitarismo eta antinazionalismoan.

3.- INDALECIO PRIETOREN BURUZAGITZA

Perezaguaren buruzagitza (1910eko meatzarien greba orokorrera bitarte arrakastatsu izan zena) ahultzen hasi zen handik aurrera, PSOEk bere estrategia politikoa aldatu eta Gorteetako hauteskundeetan errepublikanoekin aliatu zenean. Horri esker, PSOEk Pablo Iglesias Espainiako lehen diputatu sozialista bihurtzea lortu zuen. 1911an beste greba orokor batek egin zuen porrot eta Indalecio Prieto (sektore moderatuaren burua) Bizkaiko probintzi diputatu hautatua izan zen 'Conjunción Republicano-Socialista' delakoarekin. Ondorengo urteetan, halako “gerra zibil” bat piztu zen euskal sozialismoaren baitan, 1914–1915era arte amaituko ez zena; Prietok irabazi zuen eta Perezagua alderditik egotzi egin zuten.

Hartara, etapa berri bat ireki zen euskal langile mugimenduan, eta mugimendu hori Lehen Mundu Gerrak iraun zuen urteetan hazi eta sendotu zen sindikalismoaren arloan, Meatzarien Sindikatua eta, batez ere, Metalurgialarien Sindikatua eratu zirenean; Bizkaiko UGT indartsuaren oinarritzako bi zutabeak, alegia. Euskadiko sozialismoaren garai horretako buruzagi zen aldetik, Indalecio Prieto nazionalismoaren etsairik porrokatuena bilakatu zen, eta haren prentsa-organoa, “Euzkadi”-k, “el españolismo es Prieto” eta gisakoak botatzera heldu zen.

Prietoren aitzindaritzapean, euskal sozialismoak hainbat ezaugarri izan zituen: liberala (“Soy socialista a fuer de liberal”, definitu zuen bere burua Prietok), errepublikanoa (errepublikanismoaren aliatu etengabea 1936ra arte), erregenerazionista, erreformista eta errotik demokratikoa. Bestalde, 1917ko Errusiar Iraultzak PSOE barruan terceristek – III. Internazionalarekin bat egin zale– eta antiterceristek –beren nortasun–ezaugarri politikoak galdu nahi ez zituztenek– sortutako debatean, Prieto argi eta garbi azkenekoekin jarri zen eta Alderdiaren gehiengoak berari jarraitzea lortu zuen.

Meatzarien Sindikatuaren gehiengoak, berriz, komunismorako jauzia egitea aukeratu zuen, eta horrek Bizkaiko UGTtik kanporatu zuen 1922an. PCE hasiberriak meatzaldean izan zuen foku nagusietako bat.

Indalecio Prieto izan zen, gainera, formula bila hasi zena euskaldunen autogobernu-nahiei erantzuna emateko: lan horren emaitza, denboraren buruz, Euskadik 1936an erdietsi zuen lehenengo Autonomia Estatutuarekin gauzatuko zen.

4.- SOZIALISMOA GIPUZKOAN ETA ARABAN

Gipuzkoako sozialismoa 1897an egin zituen bere lehenengo urratsak, urte hartan sortu baitzen Eibarko Elkartea. 1901ean Irun eta Soralezeko Elkarteak sortu ziren eta, gero, Pasaia, Errenteria, Bergara eta beste herri batzuetakoak.

Fundatu bezain laster, Eibarko Elkarte Sozialistak kide kopuru handia bildu zuen eta indar horrekin herriko langile mugimenduaren zuzendaritza bereganatu zuen. Horren froga garbi-garbi gisa, sortu eta lau urtera baino ez, 1901an, Eibarko sozialistek bazuten, jada, beren prentsa-organo propioa, "¡Adelante!", eta 1903an udal ordezkariak ere atera zuten.

Euskal sozialismoa bere osoan hartuta, Eibarko sozialismoak halako ezaugarri berezi batzuk garatu zituen, gerora Gipuzkoa guztiko sozialismoaren nortasuna markatuko zutenak. Hasi borroka sozialei itsatsi zien moderaziotik, hiribilduaren industriaren interesak bere osoan zainduz beti. Jokabide horri esker, langileek negoziatzeko ahalmen handia zeukaten, Bizkaian ez bezala.

Gainera, nazionalismoak probintzian antolamendu sendorik 1910era arte izan ez zuenez, Eibarko sozialistek eta, hedaturaz, Gipuzkoakoek, ez zuten bat egin Bizkaiko PSOEn antinazionalismo gogorarekin. Horregatik, euskalzaletasuna nabarmena izango da sozialismo horren adierazpen askotan: euskara erruz erabiltzea, ekintza politikoa baserrialdera ere eramaten saiatzea, Udaletik foruen berrezartzea defendatzea 1906an... Toribio Echevarría eta beste pertsona ospetsu batzuen eraginak asko lagundu zuen Eibarko sozialismoak euskal arazoaren mamian sakondu zezan.

Toribio Echevarriaren jarrera autonomiazalea Gorteen Kataluniarentzako Autonomia Estatutu bat eztabaidagai zerabiltenean plazaratu zen; hain zuzen ere, Euskal Herriko hainbat udalerritan Udal Bilerak egiten hasiak zirenean autogobernu-prozesu batean aurrera joateko helburuz. Gainerakoan, II. Errepublikara arte itxaron beharko da Gipuzkoan -Bizkaian bezala aurreko urteetan- euskal politikaren hiru bloke nagusiak eratuz joan daitezen: eskuin ez-nazionalista, euskal nazionalismoa eta ezker sozialista eta errepublikazalea.

Arabian, berriz, sozialismoak askoz zabaltze gorabeheratsu eta zailagoa izan zuen. Nola Araba hala Nafarroa PSOEn garai hartako hedapenik txikieneko probintziak izan ziren, beren kontserbadurismoagatik, beren industrializazio urri eta berankorregatik eta langile-tradizio garrantzizkorik ezagatik. Azken bi probintzia horietako egoera ere aldatuko zen II. Errepublika heldu zenean, eta orduan sozialismoak zabalkuntza handia izan zuen.

5.- SOZIALISTAK ETA LEHENENGO AUTONOMIA ESTATUTUA

1930eko abuztuaren 17an, Indalecio Prieto –bere buruaren izenean baino ez– “Donostiako Itunaren” bilerara joan zen. Errepublikanoen eta zentro–ezkerreko katalanisten aliantza horrek helburu bat bazuen: Errepublika ekartzea Espainiara eta, harekin batera, autonomia Kataluniara. Irtenbide autonomiko hori Euskadira ere zabaltzeko modukoa zen. Hala ere, Ituna osatzen zutenek ez zuten inolako konpromisorik hartu, zeren euskal nazionalismoak ez baitzuen parterik hartu bilera horretan. Urte haren bukaeran, Prietok PSOEko Batzorde Exekutiboaren gehiengoa erakarri ahal izan zuen Donostiako Itunera.

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeak errepublikanoek irabazi izanak berekin ekarri zuen monarkia erortzea eta Errepublika ezartzea. Eibarko Udala izan zen, gainera, Espainia guztian Errepublika lehenengo aldarrikatu zuena, Bartzelonan edo Madrilan ofizial egin baino lehen. Hiri Armagina etsenplu on bat izan zen Monarkiaren Kontrako Blokeak (errepublikanoek, PSOEk eta ANVk osatua) Gipuzkoako eta Bizkaiko hiri– eta industria–gune nagusietan lortutako garaipenarena; Donostia eta, batik bat, Bilbo buru zirela.

Errepublikarekin, euskal arazoa planteatu zen. Kale egindako saiakeraren bat izan ostean (EAJ–PNVk, karlistekin aliatu zen garaian, erakutsi zuen sektarismoagatik), bigarren fase batean akordio batera heldu zen Estatutua onesteko bide bat finkatze aldera, lau urrats nagusitan: proiektua Probintzietako Diputazioek onestea (une hartan ezkerreko indarren eskuetan) eta ondoren, bata bestearen segidan, Euskal–Nafar Udalen Batzarrak, herritarrek erreferendumez, eta, azkenean, Gorteek. Gorteek, dena den, beren subiranotasuna baliatuz Estatutua aldatu ahal izango zuketean. EAJ–PNVk bide hori onartu zuen.

Ezkerreko indarrek hauteskundeak irabazitakoan, 1936ko udaberrian, EAJ–PNV eta Frente Popularra elkar–aditze adiskidetsu batera heldu ziren, José Antonio Aguirre eta Indalecio Prieto beren buruzagiek pertsonifikaturik eta Estatutua oinarritzko gutxienezko lokarri zutela; horrek eztabaida parlamentarioa bizkor egitea erraztu zuen. 1936ko uztailean, testua adostuta eta Gorteek berresteko prest zegoen, han Frente Popularrak baitzeukan gehiengoa. Estatutu horren fruitu (gerra zibilaren erdi–erdian onetsitakoa), lehenengo Eusko Jaurlaritza eratu zen. Gobernu hori José Antonio Aguirre nazionalistak gidatzen zuen eta puntako sozialista batzuk ere izan zituen kide, hala nola Aznar, De los Toyos eta Gracia. Gobernu horrek exilioan eutsi zion gerra zibilaren ostean eta Espainian, Francoren altxamenduaren garaipenarekin, ezarri zen diktadurako urteetan.

6.- FRANCOREN DIKTADURAREN URTE LUZEAK (1939-1975)

Sozialismoak aurka egin zion Francoren diktadurari, eta bi fronte nagusitan gauzatu zen oposizio hori diktaduraren urte luzeetan: barruan, alderdia berrantolatzeko estrategia arriskutsu batekin, eta kanpoan, bizirik atxikiz exilioko Eusko Jaurlaritza sostengatu zuen sozialisten eta nazionalisten arteko akordioa. Horrek 1960ra arte iraun zuen, orduan krisialdi larri batek jo baitzuen.

PSOEren berrantolatze horretan zerikusihandia izan zuten euskal sozialismoaren zenbait pertsona ospetsuk. Ramón Rubialek Bizkaitik eta Antonio Amatek, Arabako sozialismoaren barruan, zeregin nabarmena bete zuten alde horretatik. Horregatik, biek ere pairatu zituzten hainbat zigor eta etengabe ibili ziren sartu eta irten erregimen frankistaren aurkariak, Espainiako geografia guztian barreatuak, pilatzen ziren presondegi guztietan.

Ramon Rubial, Espainiako gerra zibilean lerro–lerro hainbat batailoitan parte hartu ondoren, 31 urte zituela sartu zuten kartzelan, 1937an. Kartzelan hogeitun urtetik gora eman zuen. Denbora horretan guztian helburu bakarra izan zuen: alderdia Espainian berrantolatzea. Hala, Penal de Santa María delakoan preso, Aranjuezko espetxetik zein Babcock Wilcox–eko lan–pelotoitik paseaz (han harremanetan jarri zen Bizkaiko antolamendu sozialistaren kimuarekin), bere indar guztiak bildu zituen zeregin horretara.

Behin askatasuna erdietsita, 1957tik aurrera, Ramón Rubialek herrialde guztia kurritu zuen Alderdia berrantolatuz, eta horrek etengabeko atxilotetak ekarri zizkion. Lan eskergea horren guztiaren emaitza gisa, eta Antonio Amat 1958an atxilotua izan ostean, “Pablo” (Ramon Rubialek klandestinitatean izen hori erabili zuen) barrualdeko erakundearen erreferente funtsezko bihurtu zen, eta klandestinitateko batzorde exekutibo guztietan hartu zuen parte.

Hirurogeiko hamarkadaren azkenekoetan, alderdiaren egitura guztiak joan ziren berrituz; bestalde, exilioko erakundearen pisua barrualdera pasatu zen eta beste buruzagi–belaunaldi bat sartu zen. Euskal sozialismoan ere gertatu zen hori.

7.- DEMOKRAZIAREN BERREZKURATZEA

Euskadin demokraziaren berreskuratzeak –Franco 1975eko azaroan hil eta 1977ko ekainean lehenengo hauteskundeak egin ondoren– Espainiako gainerako lekuetako ezaugarri bertsuak izan zituen, oro har. Hala eta guztiz ere, hemen askoz prozesu konplexuagoa izan zen, ETAren terrorismoak bere horretantxe segitu eta are gehiago ere gogortu zelako.

Euskal sozialismoa (PSE–PSOE zuen izena orduan) nabarmen indartuta atera zen 1977ko ekaineko bozetatik. Hortaz, bere pisu politiko guztia demokrazia eta autonomia berreskuratze baliatu zuen, Herri–ikusmoldea eta Estatu–sena garatuz. Harrotasunez esan dezakegu euskal alderdi bakarra izan ginela kartsutasun berarekin defendatu zuena, lehenik, Espainiako Konstituzioa eta, gero, Autonomia Estatutua.

Eta, zer esanik ez, bete–betean hartu genuen parte autogobernua berreskuratze lanetan. Erreforma Politikorako Legearen ostean, eta 1977ko ekaineko hauteskundeen aurretik, Alderdi Sozialistak “konpromiso autonomiko” delakoaren sinaketan hartu zuen parte, urte hartako bertako maiatzean. Beraz, eta Errepublikara garai bezala, berriz ere Konstituzioaren bidearen hautua egin zen autonomia lortzeko.

1978ko urtarrilaren 4an argitara eman zen aurreautonomiaren erregimena eta Eusko Kontseilu Nagusiaren eratzea onesten zuen dekretua. Hainbat negoziazioen ondoren, Kontseilu hori Gasteizen eratu zen, 1978ko otsailean, Ramón Rubial lehendakari zela; botazio batzuen ostean, Ramón Rubial nagusitu baitzitzaion Juan de Ajuriaguerra hautagai nazionalistari. Handik aurrera, Demokrazia–aldi honetako Euskadiko lehen Lehendakaria buru–belarri lotu zen lanari, euskaldunen autogobernu–nahiak gauzatzeko. Bere fruituak ekarri zituen, azkenean, sozialisten eta nazionalisten arteko akordioak, UCD zenduak hasieran bere errezeloak erakutsi arren.

Prozesu konstituzionalaren eta Estatutua idazteko negoziazioen ostean, Estatutua azkenean onetsi egin zen erreferendumez 1979ko urriaren 25ean.

8.- TRANTSIZIOAREN GARAI ZAILAK

Azkeneko mende laurdena aldi konplexua izan da, bi berezitasunek markatua: terrorismoak –bereziki zitala demokraziaren hastapenetan– bere horretantxe segitzea eta are larriagotzea, eta nazionalismoaren zalantzak eta balantzak (joera doktrinarioen eta dogmatikoenen eta pragmatikoen eta elkarrizketazaleenen artean alderrai).

Beraz, bi jokamoldeak izan ditugu aldi honetan ere: noiz EAJ–PNVren itxikeria eta indar politikoaren arteko komunikaziorik eza, noiz Euskadiko alderdien arteko elkarrizketa eta konpromisoa. Aldi hau, kronologikoki, hiru etapatan labur genezake: EAJ–PNVren Gobernu kolore bakarrena, Carlos Garaikoetxeak gidaturik, 1980 eta 1987 bitartean; Euskadiko sozialistekin osatutako koalizio–Gobernuena, 1987 eta 1998 bitartean, Ardanza Lehendakaria buru; eta indar nazionalisten kontzentrazio–Gobernuena, Ibarretxe Lehendakariarekin, Lizarrako Itunaren eta EAJ–PNVren erradikalizazio soberanistaren ondoren.

Denbora horretan guztian, euskal sozialismoak aldi zailak eta are dramatikoak ere igaro ditu: batzuetan, ETAren terrorismo totalitarioak hertsaturik eta, besteetan, nazionalismo sektario eta erradikalizatzaera jo ohi duenaren nagusikeria sufrituz. Guk, ordea, tinko defendatu dugu bai askatasunen sistema, bai gure herri–ikusmoldea: desberdinen artean eraikitako herria, alegia, berdintasun politikoa oinarri. Hori dela kausa, gurea ez da oso modako alderdia izan gure herriaren historiako garai oso gogor batzuetan. Hala ere, gure printzipioei eusten erakutsi izan genuen irmotasunak zernahi oztopo–mota gainditu eta alderdi modura indartzen lagundu gintuen.

Euskal Sozialistak, aldaketarako, aurrera egiteko, egonkortasunerako, politikan elkarri ulertzeko faktore izan gara beti. Halaxe ginen Jaurlaritzako ardurak EAJrekin batera gain hartu genituenean. Garai horretan, alegia, eta gure funtsezko bultzadarekin, herriak eta euskal gizarteak inoiz baino gehiago egin zuen aurrera arlo guztietan. Gainera, garai horretan, garrantzi handiko zenbait oinarritzko erabaki hartu ziren, Ajuria Eneako Akordioa, adibidez.

Eta oposizioan ere halaxe gara, nahiz eta Lizarrako Itunaren ostean gobernatzen zuen nazionalismoaren politika arduragabe handia izan sistemaren aurkako erradikalismoarekin, eta nahiz eta EAJK eta PPK eta euren Gobernuak Aznarren garaian hainbat urtez liskar sistematikoaren dinamika eduki. Gobernu horiek ez ziren ados jartzeko gai izan herritarrentzat oinarritzekoak ziren zenbait gaitan, adibidez, terrorismoaren aurkako borrokan edo askatasunen defentsan, nahiago zutelako gai horiek alderdiaren armatzat erabiltzea hauteskundeetan etekina ateratzeko.

9.- EUSKADIREN ZENTRALITASUN POLITIKOA

Sozialistek, herri honen etorkizunerako ezinbesteko alderdi garena, gure akatsekin eta gure mugekin, erakutsi dugu uneoro. Ezinbestekoa, hasteko eta behin, euskal ezkerren batasunaren eta sendotasunaren erreferente moduan: hori agerian jarri da hasieran Euskadiko Langileen Alderdiak Euskadiko Alderdi Sozialistarekin bat egin zuenean (1991ko urrian), eta ondoren, 1993ko martxoan, Euskadiko Alderdi Sozialista Euskadiko Ezkerarekin batu zenean; Euskadiko ezkerreko bi indar politiko adierazgarrienak ziren.

Giroa aurkakoa bazen ere, zenbait eraso eta mehatxu eduki genituelako, euskal sozialistok jakin izan genuen uneoro ekimena edukitzen, zenbait politika aldeztu eta proposatu genituen terrorismoaren aurkako batasun demokratikoa lortzeko eta guztion artean herri bat eraikitzeke helburuarekin elkarriketa politikoa bideratzeko, eta ez soilik nazionalistentzako herri bat eraikitzeke, Ibarretxe Planak proposatu zuen moduan. Politika horiek blokeen arteko liskarrak gainditu behar zituzten, geldialdiarekin eta etengabeko krisiarekin amaitu behar zuten, geldialdia eta etengabeko krisia baitziren 1998tik 2009ra Ibarretxeren Gobernu guztien ezaugarriak; gainera, politika horiek, Euskadi sozialaren eraikuntzari buru-belarri ekiteko aukera eman beharko ziguten, gobernatzen zuen nazionalismoak beti eraikuntza hori atzeratu baitu.

Terrorismoaren jazarpenagatik eta gure proiektua aldezteko genituen zailtasun objektiboengatik ere, Alderdi Sozialistak jakin izan zuen bere ideiekiko fideltasunarekin jarraitzen eta ezinbesteko alderdi bihurtu zen elkarriketaren eta arrazionaltasunaren bidez euskal politika berreraikitzeke.

2002an, Patxi Lopezek eta Jesús Eguigurenek zuzendutako beste Batzorde Exekutiboak hartu zuen alderdiaren agintea eta proiektu progresista, autonomista eta euskaltzalea sustatu zuen. Hauteskundeetan gero eta indar handiagoa zuen. Horrela bada, 2005eko hauteskunde autonomikoetan PSE-EE Euskadiko bigarren indar bihurtu zen berriz; 2007ko udal hauteskundeetan Gipuzkoan irabazi zuen lehendabiziko aldiz, eta 2008ko hauteskunde orokorrean, 430.690 botoekin, euskal sozialistak lehendabiziko aldiz lehen indar bihurtu ginen hiru lurraldeetan.

Horixe izan zen gertaera garrantzitsuenaren bezpera: 2009ko martxoaren 1eko hauteskundeek Patxi Lopez Lehendakartzara eraman zuten eta Euskadiko lehen Gobernu Sozialista osatu zen.

10.- PATXI LOPEZEN GOBERNUA

2009ko martxoaren hauteskundeon ondorioz, PSE-EE aurretik bizi ez duen egoera batean zegoen (Lehendakaria sozialista zen eta Gobernuak kolore bakarra zuen) eta, gainera, euskal gizartean beste garai bat hasi zen; normaltasun politiko eta sozialak, terrorismoaren amaierak, bizikidetzaren demokratikoaren sendotasunak, krisiaren aurkako borroak eta gure Ongizateko Estatuaren defentsak markatu zuten garai berri hori.

Agintaldiaren hasieran Gobernu sozialistak zenbait helburu zituen; ondokoak, besteak beste: euskal gizarteari normaltasuna ematea, terrorismoari aurka egitea, krisiari aurre egitea, norbait bere zorira ez uztea eta Euskadi gizarte libre, solidario, jasangarri eta lehiakor bihurtzeko beharrezkoak diren aldaketak sustatzea.

Legegintzaldi sozialista:

- Askatasunaren legegintzaldia izan zen: Terrorismoarekin amaitzea lortu genuen. Gure Gobernuak ETArekin mehatxu zuzenarekin jaio zen, baina zero tolerantziako eta indarkeria deslegitimatuzko politikak giltzarriak izan ziren horrekin amaitzeko eta bizikidetzaren demokratikoaren bidea aurrera egiteko.
- Normaltasunaren legegintzaldia izan zen: Goberna daitekeela nazionalista izan gabe eta, are gehiago, haiek baino hobeto egin ahal dugula erakutsi genuelako. Patxi Lopezek Gobernuak Estatutuari eta autogobernuaren ondoriozko erakundeei prestigioa eman zien, inguruko erakundeei harremanak normalizatu zituen eta euskal herritarren arteko luzaroko liskar eta banaketan amaitu zuen.
- Krisiari aurre egiteko legegintzaldia izan zen: Krisiari aurre egiteko beste modu bat dagoela erakutsi genuen. Eskuin neoliberalak murrizketekin duen obsesioaren aurrean, sozialistek hazkunde ekonomikoko neurri batzuk eta enpresentzako laguntzak sustatu genituen, I+G+b-ren aldeko eta nazioartekotzearen aldeko apustua egin genuen, eta erabaki horiek zuzenak izan ziren.
- Ongizateko Estatuaren alde egiteko legegintzaldia izan zen: PPren gobernuek eta Kataluniako nazionalistek zerbitzu publikoak pixkanaka-pixkanaka desegiten zituzten bitartean, hemen horien aldeko defentsa sendoa egin genuen. Eta ez genuen inor bere zorira utzi. Ez da inoiz Gobernu sozialistak eman duen elkartasun laguntza adinakorik eman.
- Euskadi modernizatzeko legegintzaldia izan zen: Hezkuntzan (hirueletasuna, Eskola 2.0), Osasunean (kronikoen estrategia), Administrazioan (paperetik digitalerako jauzia), Enplegu politikan (Lanbideren sorrera) zenbait aldaketa sustatu genituen eta horiei esker Euskadi XXI. mendeko gizarte aurreratuenen mailan dago. Herri eremuan ere aldaketak egin genituen. Ordura arte nazionalistek betoa jarrita zuten zenbait gairen inguruan eta Sozialistek horien inguruko eztabaida ireki

genuen (fiskaltasunaren gaia edo Euskadiko erakunde arkitekturaren gaia, besteak beste), eta dagoeneko gai horiek ezin ditu inork baztertu.

Gaur harrotasunez esan dezakegu legegintzaldi sozialistak herriaren eraldaketa osoa ekarri zuela. Euskadiko agenda eta diskurtso politikoa goitik behera aldatu genituen; nortasunen inguruko eztabaida zaharrekin amaitu genuen, horiek jendea banatzen zutelako, eta eztabaida jendearen benetako azaroetan oinarritu genuen.

Gaur esan dezakegu Euskadin badagoela Gobernu Sozialistaren aurreko egoera bat eta osteko egoera bat, eta lortutako guztia garrantzitsua izan dela.

11. GARAI BERRI ALDAKORRETAN NABIGATZEA

Euskal sozialismoak azken hamarkadetan euskal gizartean gertatu diren aldaketetara egokitzen jakin izan du beti, eta ezaugarri bereizgarri izan du hori. Joera berri horien guztien aurrean, beti jakin izan dugu aurrerapena eta herritar guztientzako justizia soziala bermatzen duten erantzunak ematen.

Idoia Mendia PSE-EEko idazkari nagusi hautatu zuten 2014ko irailaren 16an, eta ireki zuen etapa berrian, alderdiak askotariko euskal biztanleriarentzako tresna baliagarri gisa betetzen duen zeregina indartu zuen. Eta, hori guztia, ezkerreko ikuspegi federalista batetik abiatuta eta eskuinaren eta independentismoaren postulatuari aurre egin zien zentraltasun politikoa betez.

Euskadi bake-testuinguru batean zegoen, ETAren ekintza terroristarik gabe. 2008an sortutako krisi ekonomikoaren ondorioak agerikoak ziren artean, eta herritarrek inoiz baino neurri handiagoan behar zuten sozialistek beti praktikan jartzen dugun eta zalantzarik gabe haien interesei eta kezkei erantzutera bideratuta dagoen egonkortasuna eta politika egokia.

Idoia Mendiaren lidergoari esker, planteamendu horiek guztiak bideratzeko moduko posizio batean kokatu zen PSE-EE alderdia. Euskal sozialismoko buru izan zen garaiko zutaberik garrantzitsuenetako bat euskal erakundeei egonkortasuna ematea izan zen. Euskal nazionalismo moderatuarekiko gobernu-akordioak aukera ona izan ziren sozialistok berriz ere, aurreko urteetako austeritate-politiken ondoren, gobernuetan gizarte-eskubideen inguruko aurrerapenen bermea izateko. Eragin-ahalmen handiago horri esker, gure diskurtso irekia, aurrerakoia eta zeharkakoa finkatu ahal izan genuen.

Gobernuetan egin genuen lanak euskal herritarren saria jaso zuen. 2020ko martxoan, COVID-19ak eragin zuen eta aste eta hilabete askotan gure bizitza geldiarazi zuen pandemiaren ondorioz larrienak jasaten hasi zen mundua. Hain egoera zail horretan, sozialistok batasun-, indar- eta erabakitasun-irudia transmititu genuen, eta lan hori funtsezkoa izan zen. Gainera, ondorio ekonomiko eta sozialei emandako erantzuna oso desberdina izango zen Euskadiko erakunde nagusietan egon ez bagina.

Politika egiteko modu horrek saria jaso zuen 2020ko uztailean egindako Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan. Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak babes handiagoa lortu zuen hauteskunde horietan, eta hori funtsezkoa izan zen koalizio-gobernu berria osatzeko.

Gaur esan dezakegu Idoia Mendiak PSE-EE zuzendu zuen garaian euskal gizarteak proiektu sozialistarekin berriz bat egitea lortu zela. Ziklo horretan, gizartearen babes handiagoa lortu zen, herritarrak beti izan direlako gure ekintza politikoen ardatza. Esan dezakegu etapa horretan oinarri sendoa eraiki zela sozialistok gaur egun etorkizunera begiratzeko. Oinarri horri esker, buru gara pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko gai guztietan, eta gure gizartean gertatzen ari diren aldaketetarako soluzioen abangoardian kokatuta gaude.

12. HASIERA BERRIA EUSKADI GEHIAGO EGITEKO

Willy Brandt sozialista alemaniarrek zioenez, sozialdemokraziaren dohain handia hasiera berrietarako duen ahalmena da. Ideia horren inguruan antolatu zen PSE-EEren 9. Kongresua 2021eko azaroan, "Un nuevo comienzo. Hasiera berria" izenburuarekin. Kongresu horretan, Eneko Andueza idazkari nagusi izendatu zuten, Idoia Mendia ordeztuz. Aurretik, Andueza buru zuen hautagaitzak urriko barne-hauteskundeak irabazi zituen, militanteen % 95,30en babesa lortuta.

Azken urte hauetan, eraldaketa handien diskurtsoaren buru izan gara Euskadin. Esan genuen gidoi-aldaketa bat bultzatu behar zela esparru askotan, hala nola osasun-sisteman, industria-politikan edo desparekotasunen aurkako borrokan, eta, hori guztia, gizartea kohesionatzeko baliagarria izango den Ongizate Estatuaren aldeko apustua eginez beti. Orientazio horri esker, euskal herritarren babesa berreskuratu dugu, eta 2021eko hasiera berri hori oinarri sendoa izan da pertsonen eskarietarako soluzioak planteatzeko.

Euskal sozialistok arazoak identifikatzen eta garai berri honetan jendeak dituen kezken eta nahien diagnostiko osatu bat egiten jakin dugu. Erakundeetan egiten dugun lana eta dugun eragin-ahalmena euskal herritarren eguneroko bizitzako erronkei berme guztiekin aurre egiteko tresnarik onenak direla hautematen da.

Dedikazio eta ahalegin horri esker, gora egin dugu hauteskundeetan. Eneko Anduezak alderdiaren agintea hartu zuenetik izan diren hauteskundeetan ikusi denez, PSE-EE alderdia herritarrei benetan interesatzen zaizkien gaiez arduratzen den alderditzat hartzen da. 2024ko apirilko hauteskundeetan, joera hori berretsi egin zen, eta osatutako koalizio-gobernu berrian are indar handiagoa izatea lortu genuen, bost sail zuzentzen baititugu orain.

Eneko Anduezak Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea ez izatea erabaki zuen azkenean. Horren ordean, proiektu sozialista indartzen jarraitu du, eta kanpotik koordinatu ditu alderdiaren gobernu-ekintza eta erakunde-politika. Erabaki hori lagungarria izan da euskal politikan are eragin handiagoa duen PSE-EE handiago bat eraikitzeko, eta alderdia oso kontzientziatuta dago hauteskundeetan gora egiten jarraitzea ahalbidetuko duen oinarri sendo bat finkatzeko zereginaren inguruan.

2024ko abenduaren 16an, PSE-EEko Etika eta Berme Batzordeak idazkari nagusi izendatu zuen berriz, primarioen prozesua aurkaririk gabe amaitu ondoren. Hortaz, bigarren agintaldiari ekin zion, proiektu sozialista asmo handiagoko xedeetara bultzatzeko eta euskal erakundeak (eta, bereziki, Eusko Jaurlaritza) zuzentzeko helburu argiarekin.